



IRAKASLEAK ETA GIDAK

HEZKUNTZA ETA TURISMO AKTIBOA

**RÍO ESCUELA**

Ctra A-132 Km38

22808 Murillo de Gállego (Huesca)

NIF: 44551052Y

Tel: (+34) 681806221 / 620408651

Email: [inforioescuela@gmail.com](mailto:inforioescuela@gmail.com)

Web: [www.rioescuela.com](http://www.rioescuela.com)

# Abentura eta Natura Jardueren Programa

**Eskola taldeentzat, gazteentzat eta ikasleentzat 2022**

Murillo de Gállego - Huesca - Pirinioak

**BIDAI HEZITZAILEAK**



## Sarrera

“RíoEscuela-IbaiEskola”n irakasleak, kirol teknikariak, gidak eta naturaren maitaleak gara. Gure helburua naturaren bidez heztea da, dibertsioz, segurtasunez eta errespetuz.

Jarduerak hezkuntza-zikloetara egokitzen ditugu (Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta goi-mailakoak), eta 8 urtetik gorako gazteentzat eskaintzen ditugu jarduerak.

Nahiz eta *RíoEscuela-IbaiEskola* enpresak duela gutxi ireki duen bere egoitza nagusia Murillo de Gállego herrian, 30 herrialdetan baino gehiagotan izandako esperientzia bermatzen digu turismo aktiboaren gidari eta hezitzaile gisa.

Río Escuela prestakuntza eskola eta turismo aktibo enpresa da, erregistro zenbakia TA-ZA-21-006 delarik.

Río Eskolan jarduerak eskaintzen dizkizugu. Garraioa taldeak kudeatuko du jatorrizko lekutik. Ostaturako gestioak egiten lagundu ahal dizugu: Murillo de Gállegon (aterpetxea, ostatua, hotela), Riglos herrian (aterpea) edo Jacan.

IbaiEskolako jarduerak gaztelaniaz gain gehienetan euskeraz eta ingelesez ere eskain ditzakegu.





## NOR DAGO IBAIESKOLAREN ATZEAN?

Río Escuela duela urte batzuk sortu zen ur bizietako hezkuntza eskola gisa, eta gero enpresa gisa turismo aktibora zabaldu da. Horren guztiaren atzean zuzendari gisa Eneko Yarza Arabolaza dago.

Piraguismo eta ibaiaren munduko kirol-lorpenez gain, Enekok ikasketa eta lan curriculum zabala du:

- Gorputz Hezkuntzako Irakasletza EHU 2000
- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan lizentziatua IVEF 2002
- Ur bizietako aisialdiko piraguismo gidari Kirol Teknikaria
- Ur bizietako piraguismoko goi mailako Kirol Teknikaria
- Nazioarteko Rafting Federazioko maila aurreratuko nazioarteko irakaslea
- Segurtasuneko kayakisten maila aurreratuko nazioarteko irakaslea
- "Rescue 3 Europe"-ko ur bizietan erreskatatzeko nazioarteko irakaslea
- Oinarrizko Bizi Euskarriko irakaslea
- EGA
- **Lehen Hezkuntzako maisua** eta **Bigarren Hezkuntzako irakaslea** 2007tik 2010era Iruñean, Agoitzen, Bilbon, Beasainen eta Hondarribian
- 20 herrialde baino gehiagotan ibaietako gidari lanak egin
- Munduko 15 herrialdetan 70 ikastaro baino gehiago irakatsiak ibai gidarien instruktore moduan
- Gidari zein entrenatzaileen ur-bizietako piraguismoko Kirol Teknikarien irakaslea



Egiten dutena maite duen profesional-talde handi batek babesten du zuzendaria. Besteak beste, geologoa, irakaslea, kirol-teknikariak eta nazioarteko titulua eta esperientzia duten ibai-gidariak.

Zer eskeiniko du *RíoEscuela-IbaiEskolako* taldeak? kalitate eta segurtasun handiena, tratu pertsonalizatua, jarduera bakoitzerako behar den material teknikoa, dibertsioa, Ama Lurra eta gainerako gizakiak errespetatu eta zaintzeko balioak eta atzo baino hobea izaten ikasteko motibazioa. Fidatu, esku onetan zaude.



IRAKASLEAK ETA GIDAK

HEZKUNTZA ETA TURISMO AKTIBOA

**RÍO ESCUELA**

Ctra A-132 Km38

22808 Murillo de Gállego (Huesca)

NIF: 44551052Y

Tel: (+34) 681806221 / 620408651

Email: [inforioescuela@gmail.com](mailto:inforioescuela@gmail.com)

Web: [www.rioescuela.com](http://www.rioescuela.com)

## NON DAGO “RÍO ESCUELA - IBAI ESKOLA”?

IbaiEskolako jarduera egoitza Murillo de Gállego herrian dago, Malloen Erresuman, Aragoiko Prepirineoan. Pirinioez gaindiko Ibilbide Geologikoaren hasiera da, eta Rigloseko “mallo”en azpian, konglomeratuzko erraldoiak, Gállego ibaia da protagonista bere ur laster eta kolore urdin turkesarekin.


RíoEscuela Euskal Herriko kostaldearen eta Salouren erdian dago, eta, horri esker, gure jarduerak eta PortAventura konbinatu ahal izango dira eskolako bidaia berean.

Distantziak Murillo de Gállegora:

- Jaca 45min 52km
- Zaragoza 1h 05min 105km
- Iruñea 1h 30min 120km
- Donostia 2h 30min 210km
- Gasteiz 2h 30min 220km
- Bilbo 3h 275km
- Madrid 3h 50min 400km
- Barcelona 3h 300km
- Port Aventura 2h 45min 250km



RíoEscuela-IbaiEskolak inguruko instalaziorik onenak ditu aldagelekin eta bista ederrak dituzten terraza zabal ugarirekin, Rigloseko Malloak, Putreen Pareta eta Gállegoko arroa ikusteko. Taldeek beren ogitartekoak jan ditzakete eta, nahi badute, gure edari eta janariak kontsumitu ditzakete.





IRAKASLEAK ETA GIDAK

HEZKUNTZA ETA TURISMO AKTIBOA

**RÍO ESCUELA**

Ctra A-132 Km38


22808 Murillo de Gállego (Huesca)

NIF: 44551052Y

Tel: (+34) 681806221 / 620408651

Email: [inforioescuela@gmail.com](mailto:inforioescuela@gmail.com)

Web: [www.rioescuela.com](http://www.rioescuela.com)



### Rio Escuela - Rafting Kayak - Murillo de Gállego

5,0 ★★★★★ (144) · Rafting-zerbitzua · 1 min

Irekita dago · Itxiera-ordua: 23:00

Gestionas este Perfil de Empresa

4.345 ikustaldi hilabete honetan

[Cómo llegar](#) [Iniciar](#) [Llamar](#) [Guardar](#) [Chatear](#) [Compartir](#) [Sitio](#)





## JARDUERAK

- 1- Rafting-a
- 2- El Conquis Yinkana
- 3- Kayak puzgarria urtegian
- 4- Kanoraft
- 5- River Body
- 6- Arroilen jaitsiera
- 7- Arborismo Tirolina Parkea
- 8- Paintball
- 9- Geologiaren eta ingurumenaren interpretazioa
- 10- Loarreko Gaztelua
- 11- Izotz gaineko irristaketa
- 12- Ikus-entzunezko emanaldia
- 13- DiskoFesta

### 1- RAFTING-a

**Azalpena:** Rafting-a da taldeek eskatzen duten jarduera entretenigarriena. Taldeka ibaia ontzi puzgarri batean jaitsi behar da, pala eskuan hartuta ur-laster eta korronteetan zehar. Ibaiko nabigazioaz baliatuko gara geologia eta geomorfologiak ibai-hidrodinamikan duen eragina interpretatzeko, Pirinioetan hasi eta Ebroren arroan amaituaz.

**Hezkuntza-helburua:** Jarduera honek kirol, hezkuntza eta ingurumen arloko balio eratzailak ematen dizkigu.

- Baltsan aurrera egiteko teknika eta materialak ezagutzea.
- Paleatzeko teknika ikastea.
- Ibaiaren hidrologia eta irakurketa ulertzea.
- Ur bizietan igeri egiten jakitea.





- Geologia eta hidrologia interpretatzea.
- Berdintasunezko lankidetzeta eta parte-hartzea bultzatzea, kide guztiak errespetatuz.

- Ingurumena zaindu eta kontserbatzeko konpromisoa hartzea.

**Tokia:** Gállego ibaia, Murillo de Gállegon.

**Datak:** Martxoaren 15etik aurrera.

**Iraupena:** 2 ordu eta erdi - 3 ordu.

**Adina:** 8 urtetik aurrera.

**Beharrezko materiala:** busti daitezkeen kirol oinetakoak, bainujantzia eta eskuoihala. Aldatzeko arropa eta oinetakoak, gerorako.

## 2- EL CONQUIS YINKANA

**Azalpena:** "Munduaren amaieraren konkistatzailea" estiloan talde-lehiaketa joko. Parte-hartzaileek urtegiaren ala ibaian dauden ontziekin hainbat proba gainditu beharko dituzte, besteak beste, asmamena, trebetasuna, fisikoak edo kirol-probak izan daitezke.

**Hezkuntza-helburua:** Jarduera honek jolasean kirol/hezkuntza arloko balio eratzailak ematen dizkigu.

- Hainbat ontziren propulsioteknika egokia aplikatzea.
- Oreka lantzea.
- Taldean elkarlanean aritzea.
- Helburua lortzeko ahaleginak egitea.
- Erronkari egokitutako estrategia pentsatzea eta erabakitzea.

**Tokia:** La Peñako urtegia edo Gállego ibaia, Murillo de Gállegon.

**Datak:** Martxoaren 15etik aurrera.

**Iraupena:** 3 ordu.

**Adina:** 8 urtetik aurrera.

**Beharrezko materiala:** busti daitezkeen kirol oinetakoak, bainujantzia eta eskuoihala. Aldatzeko arropa eta oinetakoak, gerorako.

## 3- KAYAK PUZGARRIA URTEGIAN

**Azalpena:** Piraguismoa goraka doa azken urteotan, onurak eta ongizatea ekartzen baititu. Ur lasaietan elkarrekin probatzea da hasteko modurik onena. Horretarako, bi laguneko kayak puzgarriak erabiliko ditugu, eta, agian, banakakoren bat.



**Hezkuntza-helburua:** Jarduera honek jolasean kirol/hezkuntza arloko balio eratzailleak ematen dizkigu.

- Ur lasaietako piraguismoan aurrera egiteko teknika egokia erabiltzea.
- Paleatzeko teknika ikastea.
- Lankidearekin batera pala erritmoa eta kadentzia koordinatzea.
- Urtegia ezagutzea eta presa batek ingurumenean izan ditzakeen ondorioak baloratzea.

**Tokia:** La Peñako urtegia, gure egoitzatik 10 minutura.

**Datak:** Martxoaren 15etik aurrera.

**Iraupena:** 3 ordu.

**Adina:** 8 urtetik aurrera.

**Beharrezko materiala:** busti daitezkeen kirol oinetakoak, bainujantzia eta eskuoihala. Aldatzeko arropa eta oinetakoak, gerorako.

#### **4- KANORRAFT**

**Azalpena:** Jarduera honetan ibaiaren zati bat jaitsiko dugu "kanoraft" batetan, hau da, kayak eta raft artean dagoen piragua puzgarri batean, korronteak aprobetxatuz eta ur-lasterrez gozatuz. Bi lagun joango dira kanoraft bakoitzean eta, agian, banakakoren bat.



**Hezkuntza-helburua:** Jarduera honek kirol/hezkuntza arloko balio eratzailleak ematen dizkigu.

- Ur bizietako piraguismoan aurrera egiteko teknika egokia aplikatzea.
- Ur bizietako paleatzeko teknika ikastea.
- Hidrologia eta uren mugimenduaren irakurketa ulertzea.
- Lankidearekin batera pala erritmoa eta kadentzia koordinatzea.
- Konfinamenduaren ondoren naturarekiko harremana estimatzea.

**Tokia:** Gállego ibaia, Murillo de Gállego.

**Datak:** Martxoaren 15etik aurrera.

**Iraupena:** 2 ordu eta erdi - 3 ordu.

**Adina:** 12 urtetik aurrera.



**Beharrezko materiala:** busti daitezkeen kirol oinetakoak, bainujantzia eta eskuoihala. Aldatzeko arropa eta oinetakoak, gerorako.

## 5- RIVER BODY

**Azalpena:** Jarduera honetan ibaiaren zati bat jaitsiko da, ur-lasterrak gorputzarekin eta ontzirik gabe erabiliz, ur bizietan igeri egiten ikasiaz eta uraren mugimendua lehen pertsonan sentituaz. Gorputza ibaira!

**Hezkuntza-helburua:** Jarduera honek kirol/hezkuntza arloko balio eratzailak ematen dizkigu.

- Ur bizietan igeri egiten ikastea.
- Ur bizietako igeriketaren bi posizioak aplikatzen jakitea eta bere zergatia ulertzea.
- Hidrologia edo ur-korronteen mugimenduak sentitu eta ulertzea.
- Ibaian igeri egitean beharrezkoak diren segurtasun-neurriak hartzen ikastea.
- Naturaren parte sentitzea.

**Tokia:** Gállego ibaia, Murillo de Gállegon.

**Datak:** Martxoaren 15etik aurrera.

**Iraupena:** 2 ordu eta erdi - 3 ordu.

**Adina:** 10 urtetik aurrera.

**Beharrezko materiala:** busti daitezkeen kirol oinetakoak, bainujantzia eta eskuoihala. Aldatzeko arropa eta oinetakoak, gerorako.

## 6- ARROILEN JAITSIERA

**Azalpena:** Jarduera honetan arroila baten ibilgua jaisten da, destrepeak, jauzi txikiak, rapel-ak eta luzera desberdineko putzuak dituen, eta nahitaez igerian egin behar da.

**Hezkuntza-helburua:** Jarduera honek kirol/hezkuntza arloko balio eratzailak ematen dizkigu.

- Ohikoa ez den ur ingurunean igeri egitea.
- Jauziaren teknika eta



segurtasuna ezagutzea.

- Rapel teknika praktikatzea.
- Arroilak jaisteko berariazko materiala ezagutzea.
- Mendiko arroileko flora eta fauna ezagutzea.

**Tokia:** Uraren mailaren araberakoa izango da. Aragoi bailaran, Tena bailaran edo Guarako mendilerroan izanen da.

**Datak:** Maiatzaren 15etik aurrera.

**Iraupena:** 3 ordu eta erdi.

**Adina:** 10 urtetik aurrera.

**Beharrezko materiala:** kirol oinetakoak lokarriekin, bainujantzia eta eskuoihala.

Irteerarako arropa eta oinetako lehorrak.

## 7- ARBORISMO TIROLINA PARKEA

**Azalpena:** Jarduera hau abentura anitzeko parke batean egiten da, trebetasun jokoak egiteko behar bezala hornitua: tirolinak, trebetasun eta oreka jokoak, zubi tibetarrak, etab. Parte-hartzaileak modu autonomoan egiten dituen garaierako ibilbideak dira, betiere parkeko arduradunek gainbegiratuta eta uneoro aseguratuta.



### **Hezkuntza-helburua:**

Jarduera honek jolasean kirol/hezkuntza arloko balio eratzailak ematen dizkigu.

- Jardueraren berezko materialak ezagutzea: arnesa, ainguratze sokak, poleak, mosketoiak.
- Garaieran aurrera egiteko teknikekin ohitzea.
- Eremu bertikalean, airekoan eta dinamikoan oreka garatzea.
- Ibilbide bakoitza burutzeko mugimen-trebetasunak garatzea.



**Tokia:** Murillo de Gállego.

**Datak:** Martxoaren 15etik aurrera.

**Iraupena:** 3 ordu.

**Adina:** 8 urtetik aurrera.

**Beharrezko materiala:** kirol oinetakoak eta arropa eroso.

## 8- PAINTBALL

**Azalpena:** Taldekako jolas bat da non parte-hartzaileek, material egokiaz horniturik (kaskoa, aurpegi-babesa, jantzia eta eskularruak), pintura-bolak jaurtitzen dituzten eremuak dituen oztopoz babesturik.

**Hezkuntza-helburua:** Jarduera honek jolasean kirol/hezkuntza arloko balio eratzailak ematen dizkigu.

- Estrategia-trebetasunak garatzea.
- Taldean lan egitea.
- Espazio-denbora eta begi-eskuen koordinazioa (punteria) garatzea.
- Arriskatuz erabakiak hartzea.

Desarrollar habilidades de estrategia.

**Tokia:** Murillo de Gállego.

**Datak:** Urte osoan euri egunetan izan ezik.

**Iraupena:** Ordubete eta 2 ordu bitartean, kontratatutako bola-kopuruaren eta taldearen arintasunaren arabera. 100 edo 200 bola kontrata daitezke pertsona bakoitzeko.

**Adina:** 10 urtetik aurrera.

**Beharrezko materiala:** kirol oinetakoak eta arropa eroso.

## 9- GEOLOGIAREN ETA INGURUMENAREN INTERPRETAZIOA

**Azalpena:** Gure egoitzako enklabe bikainetik geologikoki ikusten dena behatu ondoren, autobusarekin abiatuko gara RíoEscuela-ko geologoak aukeratu dituen interpretazio geldialdi eta ibilaldi laburrak egitera. Milioika urteko bidai.

Gállego ibaiaren bailara (La Peña urtegiko presatik Murillo de Gállegoraino) ingurune pribilegiatua da geologia behatu eta interpretatzeko, baita ibai-dinamika eta hidrologiak paisaian dituen ondorioak ikusteko ere.

Hasieratik bukaeraraino, 200 milioi urte baino gehiagoko ibilbidea egingo dugu. Itsaso tropikaletatik basamortu lehorretara, sedimentu eta ingurumenaren ezaugarriek

eratu dituzten arroka mota ezberdinak zeharkatuaz gure ibilbidean zehar.

Ibaiak formazio horiekin duen elkarreraginak paisaian morfologia desberdinak sortu dituela baieztatuko dugu, bakoitzak duen izaera harritsuaren arabera. Gainera, inguru hau bi unitate geologiko handiren arteko trantsizioa da: Pirinioak eta Ebroko arroa. Hala, Pirinioetan ekingo diogu gure ibilbideari; zehazki, geologikoki Pirinioetako Kanpoko Mendilerroak izenekoan (geografikoki Pirinioaurrekoak); eta, azkenik, Ebroko Arroaren iparraldean bukatuko dugu (Hoya de Huesca-Ebro sakonunea).



Zeharkatutako unitate geologikoen kokapenak (tolesturak eta zamalkadurak) mendikateak nola sortzen diren ulertzen lagunduko digu.

Zalantzarik gabe, ikusiko dugun elementurik harrigarrietako bat Rigloseko Malloak izango dira. 300 m-ko altuerainoko konglomeratuzko horma-zutabe multzo ikusgarri bat, arestian aipatutako bi unitateak (Pirinioak eta Ebroko arroa) lotzen dituen.

**Hezkuntza-helburua:** Jarduera honek hezkuntza arloko balio eratzailak ematen dizkigu.

- Geologia eta honek ibai-hidrodinamikan dituen ondorioak azpimarratuz ingurumena ezagutzea.

- Pirinioen eta Rigloseko Malloen eraketa ulertzea.

- Pertsona baten eta Lurra Planetaren bizitzak, apaltasunez eta errespetuarekin, alderatzea.

**Tokia:** Murillo de Gállego eta inguruak.

**Datak:** Martxoaren 15etik aurrera.

**Iraupena:** 2 ordu eta erdi.

**Adina:** 8 urtetik aurrera.

**Beharrezko materiala:** kirol oinetakoak eta arropa erosoak.

## **10- LOARREKO GAZTELUA**

**Azalpena:** Loarreko gaztelua bisitatuko dugu gidarekin. Iruñeko erregeak eman zuen gaztelu hau eraikitzeko agindua duela 1000 urte, musulmanen aurrean defentsa-lerro bat egiteko. Europan hobekien kontserbatu den Erdi Aroko gaztelua da gaur egun.



### **Hezkuntza-helburua:**

Jarduera honek hezkuntza/kultura arloko balio eratzzaileak ematen dizkigu.

- Ingurunea ezagutzea: historia eta ondare kulturala.

**Tokia:** Loarre, Murillo de Gállegotik 20 km-ra.

**Datak:** Urte osoan.

**Iraupena:** 2 ordu.

**Adina:** 8 urtetik aurrera.

## **11- IZOTZ GAINEKO IRRISTAKETA**

**Azalpena:** Izotzaren hiriburuko eraikin enblematikoenetako batera joango gara, Jakara, izotz gaineko irristaketa egitera.

**Hezkuntza-helburua:** Jarduera honek jolasean kirol/hezkuntza arloko balio eratzzaileak ematen dizkigu.

- Izotz gaineko irristaketa ezagutzea.

- Oreka eta irristatze teknika garatzea.

**Tokia:** Jacako izotz pista.

**Datak:** Urte osoan.

**Iraupena:** 2 ordu.

**Adina:** 8 urtetik aurrera.

**Beharrezko materiala:** Kirol arropa eroso, berokia, eskularruak eta txanoa.



**Azalpena:** Gazteak inspiratzeko geuk egindako hainbat ikus-entzunezko aurkezpen ditugu, bidaiekin, ingurune naturaleko jarduerekin, espedizioekin eta abarrekin zerikusia dutenak.

**Hezkuntza-helburua:** Jarduera honek hezkuntza arloko balio eratzailak ematen dizkigu.

- Gailu elektronikoak alde batera utzi eta konfort-eremutik ateraz mundua arakatu eta ezagutzeko inspiratzea.

**Tokia:** Gure egoitza Murillo de Gállegon.

**Datak:** Martxoaren 15etik aurrera.

**Iraupena:** Ordubete.

**Adina:** 8 urtetik aurrera.

### **13- DISKOFESTA**

**Azalpena:** Musika jarriko dugu gure egoitzako terraza zabaletan, Rigloseko Malloei begira, eta gazteek dantzatu eta sozializatu ahal izango dute aisialdiaz gozatuz. Irakasleak ere erlaxatu ahal izango dira, taldea ondo eta mugatuta dagoela jakinda.

**Hezkuntza-helburua:** Jarduera honek jolasean balio eratzailak ematen dizkigu.

- Dantzan eta sozializatzen gozatzea.

**Tokia:** Gure egoitza Murillo de Gállegon.

**Datak:** Martxoaren 15etik aurrera.

**Iraupena:** Ordu eta erdi - 2 ordu.

**Adina:** 8 urtetik aurrera.



## JARDUERA-PROGRAMAREN PROPOSAMENAK

Abentura eta naturako jardueren bidaia hezitzailea egun batetik 5 egunera bitartekoa izan daiteke, egin nahi diren jarduerekin. Taldeari bidaia merkeago ateratzeko bere kabuz jardueraren bat egin dezake; adibidez, Riglosera oinezko ibilaldia.

Hona hemen jarduera-programen proposamen batzuk, adibidez:

Eguna	Saioa	Jarduera Programa 1	Jarduera Programa 2	Jarduera Programa 3
1	Goiza	- Autobusa Jacara - Arroila jaitsiera	- Autobusa Murillo de Gállegora - RAFTING-a	- Autobusa Murillo de Gállegora - Geologia eta Ingurumena
	Arratsaldea	Arratsaldea libre Jacan	Geologia eta Ingurumena	Kayak-a urtegian
	Ilunabarra		Aterpetxea ezagutu eta bizikidetzatza	Ikus-entzunezko emanaldia eta DiskoFesta
2	Goiza	Geologia eta Ingurumena	El Conquis Yincana	Arroila jaitsiera
	Arratsaldea	Rafting-a	Tirolinen abentura anitzeko parkea	Arratsaldea libre Jacan
	Ilunabarra	Ikus-entzunezko emanaldia	Ikus-entzunezko emanaldia eta DiskoFesta	Ikus-entzunezko emanaldia eta DiskoFesta
3	Goiza	Kayak-a urtegian	Kayak-a urtegian / Kanoraft	Rafting-a
	Arratsaldea	Tirolinen abentura anitzeko parkea	Loarreko gaztelua / Ibilaldia Riglosen barrena zuen kontura	El Conquis Yincana - Itzulerako autobusa
	Ilunabarra	DiskoFesta	Ikus-entzunezko emanaldia eta DiskoFesta	
4	Goiza	Kanoraft	Arroila jaitsiera	
	Arratsaldea	Loarreko gaztelua	Itzulerako autobusa	
	Ilunabarra	Ikus-entzunezko emanaldia eta DiskoFesta		
5	Goiza	Paintball		
	Arratsaldea	El Conquis Yincana - Itzulerako autobusa		



# Abentura eta Natura Jardueren TARIFAK

Eskola taldeentzat, gazteentzat eta ikasleentzat 2022

Murillo de Gállego - Huesca - Pirinioak

**BIDAI HEZITZAILEAK**

JARDUERA	GUTXIENeko ADINA	IRAUPENA	PREZIOA
RAFTING-a	8 urte	2h30 - 3h	26 €
EL CONQUIS YINCANA	8 urte	3h	19 €
KAYAK URTEGIAN	8 urte	3h	19 €
KANORRAFT	12 urte	2h30 - 3h	27 €
RIVER BODY	10 urte	2h30 - 3h	19 €
ARROILA JAITSIERA	10 urte	3h30	26 €
ARBORISMO TIROLINA PARKEA	8 urte	3h	20'50 €
PAINTBALL	8 urte	1h - 2h	<13 urte: 100 bola 12 € 200 bola 16 € >14 urte: 100 bola 19 € 200 bola 22'5 €
GEOLOGIA INGURUMENA	8 urte	2h30	9 €
LOARREko GAZTELUA	8 urte	2h	8 €
IZOTZ GAINEKO IRRISTAKETA	8 urte	2h	10 €
IKUS-ENTZUNEZKO EMANALDIA	8 urte	1h	1'50 €
DISKOFESTA	8 urte	1h30 - 2h	1'50 €
Ogitarteko+edaria			4 €
Argazki erreportajea Rafting			4 €





### PROGRAMA HAUEN BALDINTZA OROKORRAK

- Prezio horiek eskola eta gazte taldeentzat dira, 2022an eskolaldian egin beharreko jardueretarako. Aste Santuan eta larunbatetan %20ko gehigarria du.
- Prezioak garbiak dira, indarrean dauden zergak barne.
- Taldea bezala onartzeko 20 lagunetik gorakoa izanen da.
- Doakoak jarduera programan laguntzen duten irakasleentzat, gehienez ere 20 ikasleko bat. Loarreko gaztelurako bisita kulturean izan ezik, parte-hartzaile guztiak ordaindu behar baitute sarrera.
- Jardueren hasierako eta itzulerako garraioa EZ DA SARTZEN; beraz, norberaren autobusa erabili behar da joan-etorrietarako. Gidariari abisatu.
- Lehen laguntzako aseguru batek estaltzen ditu jarduera hauek, eta enpresak erantzukizun zibileko asegurua badu, indarrean dagoen araudiaren arabera.
- Gidari/monitore profesional tituludunen eta material homologatuaren zerbitzua barne.
- Aipatutako iraupenak gutxi gorabeherakoak dira.
- Izotz pista: Jarduerak sarrera eta patinen alokairua barne hartzen du, instalazioak bi orduz erabiliz. Saioa animatzeko eta hurrei oinarritzkoa irakasteko monitoreak kontratatzeko aukera dago.
- Uretako jardueretarako beharrezkoa da parte-hartzaile guztiak igerian jakitea.
- Programek aldaketak izan ditzakete, erakundearekin zerikusirik ez duten arrazoi meteorologikoengatik edo ezinbesteko arrazoiengatik. RíoEscuelak eskubidea du jarduera-paketea egokitu eta horietako batzuk aldatzeko.
- Ordainketa: %50ekoa erreserba baieztatzean, eta gainerakoa jarduera baino egun batzuk lehenago, banku-transferentzia bidez.
- Baliogabetze gastu batzuk daude, erreserbaren % 30, betiere ezeztapena taldea sartu baino 5 egun lehenago egiten bada.
- Taldeko arduradunek IbaiEskolari jakinarazi behar diote adingabeen gurasoen edo legezko tutoreen baimena eta beharrezko eskuordetza. Bestela, enpresak ez du bere gain hartuko ez-betetze horrek ekar ditzakeen ondorioen erantzukizunik. Baita, jarduerak egiteko kontraindikaziorik baldin badago bere kargura dituen adingabeen artean ere.
- Jarduerak natur ingurunean eta IbaiEskolaren egoitzan egiten dira. Taldeak portaera ona izan behar du jardueraren tokian, besteak beste, ingurumenarekiko errespetua funtsezkoa da. RíoEscuelako egoitzan hondamenak izanez gero, taldeak hartuko du bere gain kalte-ordaina.